

## Amaiera eman zitzaion Ficoban Bidasoa-Lapurdi lurralde sozialki arduratsua eraikitzeako RESOT proiektuari.

2014/11/24

FICOB A Gipuzkoako azoka-esparruan (Irun) egindako jardunaldiarekin eman zitzaion amaiera RESOT 2012-2014 proiektuari: "RESOT, Sozialki Arduratsua den Lurraldea eraikiz: Bidasoa-Lapurdi".

Jardunaldian, Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako programak (POCTEFA) finantzaturako egitasmoko bazkideek hartu zuten parte. Bertan izan ziren Jose Antonio Santano Irungo alkatea eta RESOT ekimeneko bazkideen ordezkariak. 2012-2014 aldirako proiektuak izan dituen emaitzak aurkeztu zituzten eta, era berean, elkarrikerarako, gogoetarako eta diseinu-lankidetzarako guneak sortu zituzten jardunaldiko partaideekin, ekimen berriak eta lankidetzarako eta jarduteko guneak zehazte aldera.

RESOT proiektua duela bi urte sortu zuten, Bidasoa-Lapurdi mugaz gaindiko eskualdearen erronka nagusiei erantzuteko helburuarekin. Horretarako, balioa sortu eta balio hori interes-talde guztiengana zabaltzen lagunduko duten irizpide etikoak erabili eta bereganatu dituzte egitasmoak. Jardunaldian partaide izan ziren David Sánchez, MU Enpresagintza & MIK; Peyuco Duhart, Agglomération Sud Pays Basque; Miguel Angel Paéz, Irungo Udala eta Bidasoa Bizirik; Juan Maria Altuna, Hondarribiko Udala; eta Iban Lizarralde, Industria teknologia Aurreratuen Goi Eskola (ESTIA).

RESOT egitasmoaren nondik norakoak azaltzen dituen bideoa ikusi zuten jardunaldiko partaideek, lurraldean izan duen eragina eta abian jartzeko arrazoiak jasotzen zituena, besteak beste. Gainera, proiektuaren bi emaitza oso garrantzitsuren berri eman zuten. Lehenengoa, lurraldearen beharren diagnostikoa eta balioak zehaztea izan da, Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko eskualdeko agenteek burutu dutena. Balio horiek proiektu jakinak garatuz jarri beharko liriteke abian. Bigarren emaitza, RESOTen esparruan garatu diren proiektuen ebaluazioa izan da. Horren arabera, lurralde sozialki arduratsua eraikitze bidean aurrera egin da. RESOT partzuergoaren ordezkariak landutako proiektuen ondorio nagusiak azaldu zituzte. Horietakoren bat nabarmendu zuten, lurraldean izan duen eragina dela eta.

Halaber, POCTEFA proiektuen kudeatzaile Ludovic Lareynie-k 2014 – 2020 aldirako programazioaren jardura-ardatz nagusiak azaldu zituen banan-banan.

### Saio paraleloak

Jardunaldian lau saio paralelo egin zituzten:

**1. saioa (Prestakuntza eta Mugikortasuna):** Unibertsitatea-Erakundeak-Ikasleria lankidetzaren ekosistema, Irakaskuntza eredu aldaketarako, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza & MIKeko Mariangélica Martinezen eskutik. Tailer horretan unibertsitate-irakaskuntzaren ereduaren aldaketa lortzeko gakoak buruzko gogoeta egin zuten, lankidetzaren hirukoitzaren izango duen ekosistema zehazteko xedearekin: Unibertsitatea – Erakundeak – Ikasleria, ikuspegi globala kontuan hartuta (kulturen, eleaniztasunaren, mugikortasunaren eta aldaketaren agenteen kudeaketa).

**2. saioa (Berrikuntza eta Ingurumena):** Energia-trantsizioaren lurraldeak, ESTIAko Iban Lizarralderen eskutik. Energiari eta Europako lurralde askotan martxan dagoen ikuspegi ekologikoari buruzko informazioa trukatzeko tailerra izan zen. Partaideek (unibertsitateak, komunitateak, ikerketa-zentroak, elkarteak, enpresek, etab.) aukera izan zuten gaur egungo esperientziak ezagutzeko eta interesatutako parte-hartzaileen artean aukera berriak eta sinergiak eztabaidatzeko.



**3. saioa (Berrikuntza eta Partaidetza):** Pertsona langileen partaidetza: kultura berritzaile baten ardatza erakundeetan (MU Enpresagintza & MIK – Saioa Arando). Gure inguruneko erakundeek aldaketa kulturala behar dute, gaur egungo testuinguru ekonomiko eta sozialean eskatzen ari diren erakunde-berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna lortzeko. Erakundeek dituzten lehiakortasun-erronka nagusiei aurre egiteko, pertsona langileek erakundearen parte hartzea eta lidergo eraldatzailea izan behar dira erakundearen kultura berritzailearen ardatz nagusiak.

**4. saioa (Gizarteratzea):** Gazteen bizitokiei buruzko mugaz gaindiko ikuspegia (Agglomération Sud Pays Basque - UR PACT). Gazteentzako etxebizitzaren inguruan egin daitezkeen ekintzak identifikatzeko tailerra, esperimentazioaren kontzeptupean.

#### **RESOTi buruz**

RESOT egitasmoaren gidaria MIK ikerketa-zentroa da –Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateari atxikia– eta hainbat esparrutako bazkideak biltzen ditu: Administrazio Publikoak, enpresa eta unibertsitatea. Eskualdearentzat garrantzitsuak diren agenteen sarea sortuz eta guztien artean zehaztutako balioen babespean, sozialki arduratsua den lurraldea eraikitzeari ekin zaio, horretarako zenbait proiektu modu paraleloan abiarazita. Landu beharreko gaiak askotarikoak dira, minusbaliotasunean oinarritutako ekintzailletza eta sormen artistikoaren sustapena, esaterako.

Proiektuaren % 65 FEDER funts europarrekin finantzatu da, Espainia-Frantzia-Andorra 2007-2013 Lurralde Lankidetzaren bitartez. Lurralde Lankidetzaren Programa horren helburua Espainia-Frantzia-Andorra gune mugakidearen integrazio ekonomiko eta soziala sendotzea da. Mugaz gaindiko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jarduerak garatzea da laguntza horren funtsa, eta horretarako, lurralde-garapen iraunkorraren aldeko estrategia bateratuak erabiltzen ditu.